

Bidebieta

Gaiztarro parrandan

Irutxulo]

datozen egunotan Gaiztarro inguruak egun pare batez besterik ez bada ere, jai kolorez apainduko dira. Duela sei urte, bertako bizilagunek egun bateko jaia antolatzea erabaki zuten. Jai hori izan zen Gaiztarroko jaien hazia.

"Gabonetan. Gaiztarroko dendari eta bizilagunek antolatuta jaiotza ipini zen. Jai egun polita igaro genuenez, uda partean beste zerbait egitea bururatu zitzaigun" esan digu Angel Perez Varela jai batzordeko kideak.

Bizilagun eta dendarien lehen ekimen hari esker, Gaiztarroko jaiak sortu ziren, edo hobe esanda Gaiztarroko jaia, izan ere, aurtengora arte egun bateko jaia izan da.

"KTEri diruz laguntzea eskatu genion, baina beren araudiaren arabera jaiak diruz laguntzeko gutxienez pare bat egunekoak izan behar dute. Beraz, hemendik



Txantxillori ere asko gustatzen zaizkio Gaiztarroko festak

aurrera jaiak bi egun iraugo ditu" diosku Perez Varela

Uhartea errepide artean

Hainbat urtetan Gaiztarrokoak inguruotako festa bakarrak izan dira, izan ere, Bidebietakoak azken urteetan ez dira egin.

"Bidebietan aurten berreskuratu dituzte berriz ere jaiak. Aurtengora arte, beraz, auzoan gu izan gara guzti hau animatzen ibili garen bakarrak" diosku Perez

Varela. Ez da lan makala.

Errepidearen alde batera Gaiztarroko Trintxerperainoko bidearekin egiten du topo. Beste aldera, berriz, N-1 errepidearekin. Gaiztarroko uhartea dirudi errepide artean, eta bertako jaiak oasi txikia porlanezko basamortuaren erdian.

Donostiako beste auzo gehienetakoak ez bezala, jaiok ez dute inolako loturarik santutegiarekin. Ez dira San Juan, ez San Pedro ezta Karmenak ere. Gaiztarroko jaiak dira eta kitto.

Egitaraua

Ostirala 30

16.00 Pilota finalak

17.00 Haur jolasak: zaku lasterketa, zapi jolasa, magia saioa...

19.00 Txupinazoa eta buru-handiak. Ostera haurrentzako txokolate jana eta Patxi Barrique malabaristaren saioa

20.00 Txinrtxerpeko txistulariekin kalejira

20.00 Mus txapelketako finala

20.00 Txistularien kalejira

Larunbata 1

09.00 Txistularien kalejira

10.00 Futbol txapelketako finala

12.30 Berebil telegidatutako en lasterketa. Ondoren, txirrinda geldoen lasterketa

15.30 Magoaren saioa

16.30 Ginkana

17.30 Sari banaketa

18.00 Toka eta pote finalak

20.30 Sardina eta tortilla jana

23.00 Miramar taldeak alaitutako dantzaldia

• Argaltzeko sistema (Lipofit metodoa)
• Makilaje iraunkorra (bekainak, ezpainak, begiak eta orbainak)
• FREÜKMAN tratamenduak (akne, dermatitisa eta orbanak)
• Estetika medikuntza kontsulta

Zedro plaza 2 • DONOSTIA • Tfnoa.: 943-392051

KAFETEGIA

Zedro plaza 2
Tfnoa.: 943-39 99 52

MENDIOLA IKASTETXE PUBLIKOA

Haur eta lehen hezkuntza
Bidebietako jaiak 2000

Serapio Mujika 16 • BIDEBIETA • Tfnoa.: (943) 395092